

# TXORI KANTAZALE

Xabier Leteren ildoan

Alex Gurrutxaga,  
testuak

Joana Otxoa de Alaiza,  
pianoa



***“Askotan ez daukagu  
tarterik bere kantuek zer  
esaten duten pentsatzeko,  
kantariak bere piezekin  
zer esan nahi zigun  
galdetzeko...”***

## SARRERA

Xabier Leteren figura (1944-2010) ezaguna eta estimatua da Euskal Herriko txoko guztietan. Poeta handia izan zen, eta bere abestiak, garai hartako beste kantari askorenak bezala, euskaldunon oroimen kolektiboan geratu dira. Zalantzarik gabe, interes literario, musikal eta kultural handiko obra da Leterena.

Askotan, ordea, ez dugu denborarik hartzen halako obra batera patxadaz gerturatzeko; ez daukagu tarterik bere kantuek zer esaten duten pentsatzeko, kantariak bere piezekin zer esan nahi zigun galdetzeko...

Txori kantazale emanaldiak parentesi bat proposatzen du, geldialdi labur bat eguneroko bizitzan, Leteren obran atseginez murgiltzeko eta haren hitz eta musikekin beste behin hunkitzeko.

***“Ez dugu Txori kantazale  
espektakulu gisa ulertzen,  
Leteren barne-munduan  
elkarrekin murgiltzeko  
enkontru bat bezala baizik.”***

## Txori kantazale ederra non ote haiz kantatzen?

# EMANALDIAREN DESKRIBAPENA

*Txori kantazalek* piano doinuak eta hitza uztartzen ditu. Hitzez lagundutako piano kontzertu bat da, edo, bestela esanda, piano musikaz jantziriko kontakizun bat. Edonola ere, Leteren unibertsoan elkarrekin sartzeko aukera bat eskaintzen du, eta obra hori barruragotik berrezagutzekoa.

Ordubeteko narrazio etengabe bat da emanaldiaren ardatza. Bide horretan, Leteren abestien berrinterpretazio landuak eskainiko ditugu, baita haren gustuko melodiak ere. Bere testuen artean ibiliko gara, poema ezagun nahiz ezezagunei erreparatuz. Eta Leteren bizi-ibilbidea ebokatuko dugu.

Ez dugu *Txori kantazale* espektakulu gisa ulertzen, Leteren barne-munduan elkarrekin murgiltzeko enkontru bat bezala baizik. Izan ere, Joana Otxoa de Alaizak Leteren unibertso poetikoa pianoaren zuri-beltzera eraman du, eta sortu duen musikak poeta kantariaren ildoan jarriko gaitu. Alex Gurutzagaren azalpen eta errezitazioek lagunduko digute bidean aurrera egiten.

## PARTAIDEAK



### **Joana Otxoa de Alaiza Gracia**

**Astigarraga, 1988**

Piano ikasketak egin zituen Musikene Goi Mailako Musika Kontserbatorioan, eta 2011az geroztik Gasteizko Musika Kontserbatorioko irakaslea da. Ganbara-musikako masterra egin zuen Berlingo Arte Ederren Unibertsitatean, eta ahots laguntzan espezializatu da. Hainbat proiektutan parte hartu du piano-jotzaile laguntzaile eta ganbara-musikako pianista gisa.

### **Alexander Gurrutxaga Muxika**

**Zarautz, 1988**

Literaturan doktorea da, eta aditua Xabier Leteren obran. Filologia eta literatura ikasketak egin zituen Euskal Herriko Unibertsitatean eta Trentoko Unibertsitatean. 2016tik EHUko irakasle eta ikertzailea da. Dibulgazio eremuan, literatur kritikari gisa kolaboratzen du, bai hitzal-di formatuan, baita argitalpen bidez ere.



## KONTAKTUA

Helbide elektronikoa: [txorikantazale@gmail.com](mailto:txorikantazale@gmail.com)

Telefonoa: 630 666 256

Helbidea: Aztarna, Latsunbeberri 10, behea.

20120, Hernani